

# Kultur Agenda

Trila  
Uria  
Agoitz  
2024

📞 948 336 690 - 600 445 238

✉ cultura@aoiz.es

f Instagramen eta  
Facebooken zaudu

ANDONI AGIRREGOMEZKORTA

PRESENTA



  
Agoizko Kultur Etxea  
Casa de Cultura de Aoiz

 Nafarroako  
Gobernua

 NAFARROAKO  
ANTZOKI  
SAREA

# iraila

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

# urria

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

## iraila

**6-21 Memoria Historikoari buruzko Zikloa.** Erakusketa:  
*Hormigoizko mugak*

**8 Agoizko Zokoa.** Azoka

**12 Memoria Historikokoari buruzko Zikloa.** Liburu aurkezpena:  
*Nombres que recorren el tiempo.*

**13 Memoria Historikokoari buruzko Zikloa.** Oroitzapen ekitaldia

**15 Agoizko Mendi Lasterketa.**

**15 Dantza.** Cultur-Izan 2024. *Lertxunaren hegada*

**21 Memoria Historikokoari buruzko Zikloa.**

Ateraldia: *Otsondoko Bunkerrak*

**22 Memoria Historikokoari buruzko Zikloa.** Antzerkia: *Ezkaba*

**28, 29, 30 San Migel 2024**

**28 Ondareari Buruzko Europako Jardunaldiak.** Irudikapena

**30 Antzerkia.** Pirrotx, Porrotx eta Marimotots

Lehiaketak. *Agoitz Hiria XIX. Argazki Lehiaketa*

**Ikastaroak 2024-25.** Izen-emateak: [www.agoitx.eus/inscripciones-cursos/](http://www.agoitx.eus/inscripciones-cursos/)

**Irakurketa Kluba (gaztekeraz).** Informazio gehiago Kultur Etxean

## urria

**4 Ondareari Buruzko Europako Jardunaldiak.** Hitzaldia

**5 Ondareari Buruzko Europako Jardunaldiak.** Ateraldia

**6 Antzerkia.** Andoni Agirregomezkorta. *Un Vasco de la Hostia*

**18-9** (urria/azaroa) **Erakusketak.** *Koldo Amanz Zufiaurre.*  
*Keinu bat industrial iraganari*

**19 Agoizko Kostradaren I. Kapitulu Nagusia**

**20 Antzerkia.** Sendaberri Programa. *Manual*

**27 Musika.** Nafarroako XXIX. Nazioarteko Abezbatza Zikloa

**Irakurketa Kluba euskaraz.** Informazio gehiago Euskara zerbitzuan



# Memoria Historikoari buruzko Zikloa



## ERAKUSKETA HORMIGOIZKO MUGAK

**6-21** Iraila. Sala Grande  
Asteartetik larunbatera: 18:00-20:00

Erakusketak bidaia bat proposatzen du Atlantikoko Harresiaren eta Pirinioen Gotortzearen artean. Babeserako bi azpiegitura ikaragarri horiek II. Mundu Gerraren testuinguruan eraiki zituzten, eta ia-ia bat egiten dute Bidasoaren bokalean, 1940an haien sustatzaileak -Adolf Hitler eta Francisco Franco diktadoreak- elkartu ziren lekuan.

**Inaugurazioa eta bisita gidatua:**  
irailak 6 | ostirala | 19:30

INSTITUTO NAVARRO DE LA  
**MEMORIA**  
REN NAFARROAKO INSTITUTUA

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

Antolatzailea: Bakearen Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia.



## LITERATURA: LIBURU AURKEZPENA NOMBRES QUE RECORREN EL TIEMPO. MUJERES ASESINADAS EN NAFARROA 1936-1948

Amaia Kowasch Velasco eta Aitor Garjón Irigoien

**Irailak 12, osteguna. 19:00. Kultur Etxea**

Ikerketa lan honek 1936tik 1948ra Nafarroako emakumeek jasandako errepresioa erakusten du. Estatu-kolpe militarren ondoren eta diktadura-erregimenaren zati batean eraildako 95 emakumeren izenak eta istorioak ezagutarazten ditu, hamarkadetan baztertutako ahanzturatik ateratzeko. Bere istorioen bidez, denbora horretan izandako errepresio erak ikusarazten dira; zehatzago, heriotza ekarri dutenak. Nafarroan jaiotako emakumeak eta probintzian eraildako emakumeak dira, baita eskualdetik kanpo eraildako emakume nafarrak ere.



## AGOIZKO FUSILATUAK ETA ERREPRESALITUAK OROITZEKO EKITALDIA

irailak 13, ostirala. 19:30. Oriomenaren parkea

## ATERALDIA OTSONDOKO BUNKERRAK

**Irailak 21, larunbata. 9:00. 10€**

Irteera, markesinatik. Buelta, bazkalordurako.

Ibilbide gidatua: 2,75 km / Zailtasuna: Baxua / Desnibela: 54 m

**Izen-ematea: 10 €.** Erosi tiketak udaletxeko bulegoetan,  
astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara (plazak bete arte).



## ANTZERKIA EZKABA (ILUNA PRODUCCIONES)

**22** iraila, igandea. 19:00  
Kultur Etxea. 6€

Gomendatutako adina +15 urte. 70'

Presondegiaren memoria bertako biztanle bakoitzaren memoria da, familia, historiarena, zapuztutako ilusioena eta itxaropenena. Bertako hormak haien arroparekin eta oroitzapenekin eginda daude. 'Ezkaba' antzeztan San Kristobal gotorlekuaren tragedia eta presoaren historia kontatzen du. Europako handienetakoa izan zen ihesaz hitz egiten digu, baina baita kartzelako bizibaldintza gogorrez, tratuz, gosez, presoaren eta emakumeen artean ezarri ziren elkartasun-sareez, konpromisoaz, elkarlanaz, justiziaz eta erreparazioaz.

# Ikastaroak eta Tailerrak

## IKASTAROAK 2024-2025

**Aurreinskripzioak: irailaren 5etik 18ra.**

**Inprimaki honen bidez:**

[www.agoitz.eus/inscripciones-cursos/](http://www.agoitz.eus/inscripciones-cursos/)

Adi! Aurrez izena emateko epea amaitu ondoren, eta eskainitako plazak baino eskari handiagoa dagoen ikastaroetan, zozketa egingen da. Lehen-tasuna izanen dute Agoitzen erroldatutakoek.

Irailaren 19tik aurrera, plaza lortu duten pertsonekin harremanetan jarriko da matrikula formalizatzeko eta ordainketa egiteko.

Ikastaroak urritik maiatzera bitartean egingen dira.

### ANTZINAKO ALTZARIEN LEHENGORATZEA

Astelehenak, 17:00-20:00 (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Pisua)

**Irakaslea:** Arantza Martinena / **Matrikula:** 140 €. Leku kopurua: 12

### HELDUENTZAKO PINTURA: HASTAPENA ETA HOBEKUNTZA (ÓLEO Y OTRAS TÉCNICAS)

Asteazkena, 18:30-20:30 (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Pisua)

**Irakaslea:** Alodia Lusarreta / **Matrikula:** 100€. Leku kopurua: 12

\*Eguna aldatu egin daiteke, irakaslearen prestasunaren arabera.

### JOSKINTZA JASANGARRIA: HASTAPENA

Asteazkena, 17:00-19:00 (Kultur Etxea)

**Irakaslea:** Matilde Rada / **Matrikula:** 180 €. Leku kopurua: 12

### ARTE PLASTIKOAK, HAURRENTZAT: 5-14 URTE, EUSKARAZ

Asteazkena, 17:30-18:30 (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Pisua)

**Irakaslea:** Alodia Lusarreta / **Matrikula:** 60 €. Leku kopurua: 10

\*Eguna aldatu egin daiteke, irakaslearen prestasunaren arabera.

# Irakurketa Kluba

### IRAKURKETA KLUBA (GAZTELANIAZ)

Irailetik maiatzera, literaturazaleentzako saioak.

Parte hartu nahi baduzu, izen-ematea eta informazio gehiago Kultur Etxean edo [cultura@aoiz.es](mailto:cultura@aoiz.es).

Taldeko koordinatzailea: **Socorro Latasa Miranda**

Lehenengo saioa: irailaren 26an, osteguna, 17:30etan.

Baldintza: liburutegiko kidea izatea / 16 urtetik gorakoentzat Matrikula doan.

### IRAKURKETA KLUBA (EUSKARAZ)

Urritik maiatzera, literaturazaleentzako saioak.

Parte hartu nahi baduzu, izen-ematea eta informazio gehiago Euskara Zerbitzuan edo [ninaizmikelantza@gmail.com](mailto:ninaizmikelantza@gmail.com)

Taldeko koordinatzailea: **Mikel Albisu Iriarte**

Lehenengo saioa: urriaren 28an, astelehena, 18:00etan, Euskararen Etxean.

## EZ GARA JAITSIKO! PIRROTX, PORROTX ETA MARIMOTOTS



**30** iraila, astelehena. **18:00**  
Merkatuko plaza. Doan

Antzerki musikala familiarra / Euskaraz  
Euria eginez gero frontoian izango da.

Marimotots zuhaitz baten adaburura igo da, han goitik lurra hobeto ikusteko. Pirritxek eta Porrotxek atzetik jarraituko diote. Eta zuhaitzez zuhaitz eta adarrez adar, espero gabeko lekuetara helduko dira.

## UN VASCO DE LA HOSTIA ANDONI AGIRREGOMEZKORTA



**6** urria, igandea. **19:30**  
Kultur Etxea. **5€**

Bakarrizketa

Andonik, adibidez, galdetzen dio bere buruari: egia al da euskaldunak 'hostia' hitzarekin jaiotzen direla ahoan? Egia al da Euskadin hainbeste euri egiten duela, hango biztanleek brankiak garatu ditzaketela? Han, sexua zenbateraino da ezinezkoa, Tom Cruise berak ere ez lukeela onartuko? Galdera horiei erantzuteko, abizen esanezineko gizonak, Andoni Agirregomezkortak, euskaldunei egotzitako topiko guztiak aztertu eta desmuntatzea erabaki du: iparraldeko txitxarroaiak, matriarkatua, turismo gastronomikoa (prezioak ikusita, turismo astronomikoa deitu beharko litzaioke).

Zer hoberik misio horretaz arduratzeko bera bezalako ostiako euskaldun bat baino?

## SENDABERRI PROGRAMA, PAISAIA ESZENIKO BERRIAK

**Sendaberri**  
Nuevos paisajes escénicos  
Paisaia eszeniko berriak

Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kirol Departamentuarekin lankidetzan diseinatutako Nafarroako Antzokien Sarearen ziklo propioa da. Gure espazio eszenikoen ohiko programazioa aberastea eta osatzea du helburu, lengoia berritzaileen erabileraren bidez eta kontzientzia kritikoa sortzen duten ikuskizunei esker.

## MANUAL CÍA CORIOLIS



**20** urria, igandea. **19:30**  
Kultur Etxea. **5€**

Antzerki bisuala  
Gomendatutako adina +14 urte. **55'**

Zuzendaritza: Maru Fenández eta Gerardo Martínez

Ikusizko eta keinuzko antzerki-ikuskizuna da, testurik gabekoa. Gorputz-irudiak eta objektuak ditu oinarri; eta eskuak sormen lanaren lehengaitza dira.

Lan egiten duten eskuetatik abiatuta eraikitzen da obra; lanbideari edo zereginari datzekion mugimenduak, tentsioak, erritmoak eta trebetasunak oinarri hartuta, eszena bakoitza sortzen da. Sinbolismoz eta gaur egungo edukiz beteriko uneak eskaintzen dira, sinpletasunetik, umoretik, absurdutik, gordintasunetik, indarkeriatik, samurtasunetik eta jolasetik abiatuta.

## KEINU BAT INDUSTRIAL IRAGANARI KOLDO ARNAZ ZUFIAURRE



**18-9** urria-azaroa  
Areto Nagusia

Olioan margotutako koadroen bilduma, bakoitzaren graffitoz egindako zirriborroarekin batera.

Egun bizi ditugun garai nahasien gaineko hausnarketa dugu. Gure iragan hurbilari begirada; hain urruna ez den iragana, askorentzat ia egungoa.

**Inaugurazioa:** urriak 18 | oetirala | 19:00

## San Migel 2024

**Irailak 28tik 30a arte.**

San Migelen egitarau osoa etorkizunean jakinaraziko da.



## Musika

**NAFARROAKO XXIX. NAZIOARTEKO ABEZBATZA ZIKLOA**  
MIXED CHOIR OF RIGA CATHEDRAL CHOIR SCHOOL (Letonia)



**27** urria, igandea. **19:00**  
**Kultur Etxea. 6€**

Zuzendaria: Jurģis Cābulis

Rigako Katedraleko Abesbatza Eskolako Abesbatza Mistoa 1996an sortu zen, eta zuzendaritza eta kantu koraleko trebetasunak sendotzera bideratutako ikasle gazteek osatutako taldea da. Nazioarteko lehiaketetan sariak irabazi ditu eta Hyperion Recordsekin elkarlanean album bat kaleratu du. Jaialdi eta kontzertuetan izan duen parte-hartzea nabarmena izan da; eta, bestek beste, Eriks Esenvaldsen "Nordic Light" bezalako obrak interpretatu ohi ditu.

# Beste Jarduerak



## AGOIZKO ZOKOA

Irailak 8 | igandea | 10:00-14:30

Agoizko Karrika Berrian kokaturiko aire zabaleko azoka da, non ekoizle, merkatar, artisau eta pertsonen postuekin herriko bizitza sozioekonomikoa biziberritzen da.

ZOKOK Irati S.Aren historia ezagutzeko aukera ematen dizu. Nafarroako enpresarik garrantzitsuenetako bat izan zen XX. mendeko lehen erdialdean. Erakusketa maketek, panelek eta argazkiek osatzen dute.

**Bisitaldi gidatuak Víctor Manuel Egia Astibiarekin | 11:00 y 12:00**

Bisitaldi bakoitzean, gehienez 15 pertsona heldu (iritsiera hurrenkeraren arabera).



## VIII. AGOIZKO MENDI LASTERKETA NAFARROAKO RANKING-A 2024

Irailak 15 | igandea | 9:00

Luzea: 21,5 km, 1.300m+, 21€.

Motza: 11,5 km, 700m+, 15€.

Izen-emateak: [www.kronoak.com](http://www.kronoak.com)



Agozko Mendi Lasterketa  
Carrera de Montaña Aiz

## ONDAREARI BURUZKO EUROPAKO JARDUNALDIAK

Edizio honen leloak, Kulturaren bideak, sareak eta topaguneak, konexio kulturelek duten garrantzia azpimarratu, kultura-ondarearen dimentsio paneuroparra balioetsi eta "ideien trukea" jorratu nahi du gure lurraldean bizirik dirauten bide eta ibilbideak ezagutzeko aukera ematen duten jardueren bidez.



European Heritage Days

## DANTZA: AGARAMONTARREN ETA BEAUMONTARREN ARTEKO BAKEAREN SINADURAREN TAULARATZEA

Irailak 28 | larunbata | 13:00

Nafarroa Beherea plaza, frontoian euria eginez gero



Agoizko dantzak. Alde batetik, 1479an agaramontarren eta beaumontarren arteko gerra eta geroko bakearen sinadura irudikatzen dute, gure herriko amariak irudikatzen duen jazoeran oinarrituta. Bestetik, duela mende batzuk hainbesteko ospea zuten herriko oihalgileen lana irudikatzen da (agoizkoak, sinpleak izateaz gain, lanbide horrekin lotuta gaude).

AYUNTAMIENTO DE AOIZ  
MUNICIPIO AIZ




## HITZALDIA: "AOIZ Y LA CALZADA ROMANA DEL PIRINEO"

urriak 4 | ostirala | 19:00 | Kultur Etxea

## ATERALDIA: RINCONES DE LA CALZADA ROMANA DEL PIRINEO

urriak 5 | larunbata | 9:30 | Irteera Nafarroa Beherea plazatik



Izena ematea NAHITAEZKOA, DOAKOA eta BANAKAKOA.

Autobusez edo auto partikularretan.

Izen-emateak plazak agortu arte

(50 autobusean, 100 auto partikularretan):

**Bidali mezu elektronikoa [publicoayuntamiento@aoiz.es](mailto:publicoayuntamiento@aoiz.es) helbidera, bertaratutako pertsona guztien izen-abizenak eta erabiliko duten garraiobidea (autobusa edo autoa) adierazita.**

Ibilbidea:

- Aurizberri: erakusketa-gunea (erromatar galtzadaren gaineko sarrera, Ibañetako pasabidea eta bidearekin lotutako enklabeak).
- Zalduako aztarnategia, Auritzen (gorpuzkien azalpena eta bisita).
- Artziko aztarnategia (termak eta ingurunea bisitatzea).

aranzadi  
turismo aranzadi



cedema garalur

## AGOIZKO KOSTRADAREN I. KAPITULU NAGUSIA

urriak 19 | larunbata



11:00 | Aurelio León Aretoa (udaletxea)

Gonbidatutako kofradiei harrera egitea eta, ondoren, Agoizko lekuri enblematikoenak bisitatzea.

12:30 | Kultur Etxea

Kapitulu Nagusia egitea, dagozkion izendapenak, omenaldiak, Erraldioen Konpartsa eta San Miguel Abesbatzaren parte-hartzearekin. Ondoren, Alde Zaharra zeharkatu du poteoa.

# Lehiaketak

## AGOITZ HIRIA XIX. ARGAZKI LEHIAKETA



**Parte hartzaileak:** Nahi duen oro.

**Gaia:** Agoitz.

**Sariak:**

Modalitate Orokorreko saria: **500€**

Publikoaren saria: **300€** (Agoitzen erroldatutakoak bakarrik).

**Aurkezpena:**

urriaren 18a arte, Udaletxean (10:00-13:00)

**Oinarriak:**

Udaletxean, Kultur Etxean eta [www.aoiz.es](http://www.aoiz.es) webgunean.

# Dantza

## CULTUR-IZAN 2024 Tradiziozko Arte adierazpenen egitaraua

Cultur-Izan, Kultura Zuzendaritza Nagusiak bultzatutako programaren helburua da Nafarroako musika, dantza eta ahozko adierazpen herrikoiak zabaltzea eta haien arteko bitartekaritza egitea, guztiak ere kultur ondare immaterialaren elementuak baitira.



### LERTXUNAREN HEGADA LED SILLHOUETTE

**15** iraila, igandea. **19:30**  
**Kultur Etxea. Sarrera doan**

Dantza garaikideko ikuskizun honetan, Baxiliren istorioa kontatzen zaigu. Inguuruotako txirlabiltzaile bakarra da Baxili, eta harat-honat ibiltzen da paduretan eta hondartzetan barna. Gelditzen den azkena da. Oso zaharra den arren, bere hanka luze eta ederrek lertxun baten itxura ematen diote oraindik ere. Begirada asko daude bere jardueran jarrita, bere espezieko azkena delako, beharbada. Hau da zorigaitza! Urtez urte aritu da horretan, baina, dirudenez, jadanik ez dago beretzako tokirik hondartzetan. Konplize bakarra dauka, Salvatore, Italiako lagun bat, izozkien orgatxoari lotuta bizi dena. Zahartzarora hurbildu arren, bietako batek ere ez du erretiroa hartu nahi.

# Kultur Etxea

Jendecarentzako arreta, astelchenetik ostiralera (10:00-14:00)

☎ 948 336 690 - 600 445 238 ✉ [cultura@aoiz.es](mailto:cultura@aoiz.es) f Instagramen eta Facebooken zaude

[www.aoiz.es](http://www.aoiz.es)